

Hiri Hezitzaileen Gutuna





International Association of Educating Cities
Asociación Internacional de Ciudades Educadoras
Association Internationale des Villes Éducatrices

1998tik, Donostia hiria **Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkarteko (AICEko)** kide da. Donostiako Udalak erreferentziako agiria, "Hiri Hezitzaileen Gutuna", sinatu zuen, eta orain formatu honetan aurkezten dizuegu, denoi helarazteko.

"Donostia hiri hezitzailea" izateko konpromisoa kontzientzia eta erabakitasun osoz hartu zuen udalerrriak, gure hiria hezkuntza-eragile aktiboa dela aitortuko duten proiektuak bultzatzeko. Gure hiriak lekua du eginkizun horretan komunikabideekin eta hezkuntza-egitura tradizionalekin batera; familiarrekin eta eskolarekin batera, besteak beste.

Dena dela, berez dagokigun ardura horretatik haratago jo nahi dugu. Motibazio berezia dugu giza balioen eta balio demokratikoen alde, eta, hori dela-eta, zenbait ekimen garatu ditugu *"Donostia, bake-kulturaren gunea"* proiektuaren barruan. Hauek dira aipatutako proiektuaren xedeak: hazkunde ekonomiko orekatuaren eredia sortzea, hirigintza-bilakaera, ongizatea eta kohesio soziala, eta bizitzeko eskubidea, errespetua, askatasuna eta elkartasuna defendatzea, hiritarren bizikidetzarako oinarri gisa.

Ziur gaude proiektuak asko lagunduko duela bizikidetzabaketsu eta askea izan dadin hiriaren nortasun-ikurra.

Odón Elorza
Alkatea

Arritxu Marañón
Hezkuntza, Gazteria,
Lankidetzeta eta Giza Eskubideen ordezkaria



Hiri Hezitzaileen Gutuna

Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Lehen Biltzarra 1990eko azaroan egin zen Bartzelonan. Biltzarrean ordezkariak izan zuten hiriek oinarritzko printzipioak hasierako Gutunean jaso zituzten hezkuntza hirian bultzatzeko. Uste osoz pentsatzen zuten hirietako biztanleen garapena ezin dela halabeharrez mendeaz utzi. Geroztik, III. Nazioarteko Biltzarrak (Bologna, 1994) eta Genoakoak (2004) ere Gutuna berrikusi zuten haren planteamenduak gizartearen erronka eta behar berrietara egokitzeko.

Gutun hau hainbat agiritan oinarritua dago: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean (1948); Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaleri buruzko Nazioarteko Itunean (1966); Guztientzako Hezkuntzari buruzko Mundu-Adierazpenean (1990); Haurrei buruzko Munduko Gailurrean onetsitako Konbentzioan (1990) eta, azkenik, Kultur Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsalean (2001).

Atarikoak

Gaur egun, hiriak –handiak nahiz txikiak– ezin konta ahala aukera ditu hezkuntzan, sekulan baino gehiago. Baina, aldi berean, hartan hezkuntzaren kontrako indarrak eta joerak eragin dezakete. Aldez edo moldez, hirian badira lanabes garrantzitsuak osoko prestakuntzari begira: hiri sistema konplexua baita eta, aldi berean, hezkuntza-eragile etengabea, anitza eta alderdi askotakoa, eta gauza da heziketaren kontrako eragileak indarrrik gabe uzteko.

Hiri hezitzaileak berezko nortasuna du, bere herrialdean bertan txertatua. Beraz, hiriaren nortasuna eta bera parte den lurraldearena elkarren mendeko dira. Halaber, hiri hezitzailea harremanetan dago bere ingurunearekin; zehazki, bere lurraldeko beste hirigune batzuekin eta beste herrialde batzuetako hiriekin. Haren helburu etengabea ikasi, trukatu eta partekatzea izango da. Hortaz, bertako biztanleen bizitza aberastea ere bai.

Hiri hezitzaileak eginkizun hezigarria landu eta garatu behar du ohiko eginkizunekin batera (ekonomikoa, soziala, politikoa eta zerbitzuak ematea), eta bere biztanle guztien prestakuntza, sustapena eta garapena izan behar ditu gogoan. Nagusiki, haur eta gazteak heziko ditu, baina borondate irmoa agertu behar du adin guztietako pertsonak bizitzan zeharreko prestakuntzan sartzeko.

Arrazoi sozial, ekonomikoa eta politikoez justifikatzen dute eginkizun hori, eta, batez ere, bizikidetzan oinarritutako kultura eta prestakuntza arloko proiektu eragingarria lortzea izan behar dute helburu. Honatx XXI. mendeko erronka handiak: lehenik eta behin, hezkuntzan “inbertitzea”, pertsonarengan, pertsona gauza izan dadin bere giza ahalmena adierazi, berretsi eta garatzeko, betiere bere berezitasunarekin, sormenarekin eta erantzukizunarekin bat. Bigarrenik, berdintasun osoko baldintzak sustatzea guztiek besteen errespetua senti dezaten, besteenganako begirunetsu izan daitezen, harremanetan sartzeko gauza. Eta, hirugarrenik, ahal diren alderdi guztiak

erabili behar dira, hiriz hiri eta inolako bazterkeriarik gabe, egiazko ezagutza-gizartea eraikitze-ko. Xede horretarako aurreikuspenen artean, besteak beste, herritar guztiek sarrera erraza izan beharko dute informazioaren eta komunikazioen teknologietan, jendearen garapena ahalbidetzen dute eta.

Hiri hezitzaileak, beren hezkuntza-erakunde formalen bidez eta esku-hartze ez-formalen (xede hezigarria duten ekimenak hezkuntza araututik kanpo) eta informalen bidez (ez dute xede hezigarrik eta ez daude planifikaturik) elkarlanean arituko dira bata bestearekin edo denen artean esperientziak trukatzeko. Lankidetasunez proiektuak elkarrekin sustatuko dituzte azterlanak eta inbertsioak egiteko, dela zuzeneko lankidetzaren bidez, dela nazioarteko erakundeekin elkarlanean arituz.

Gaur egun, gizadiak ez du soilik aldaketen aroa bizi, egiazko aro-aldaketa baizik. Izan ere, pertsonak bere burua prestatu beharra dauka, ekonomia- eta gizarte-prozesuen globalizazioak ekarritako erronketara nahiz aukeretara kritikoki egokitzeko, eta prozesu horietan gogotsu parte hartzeko; bakoitzak bere tokitik munduaren konplexutasunean esku hartzeko, eta bakoitzak bere autonomiari eusteko ekonomiaren nahiz politikaren botere-guneetatik eragindako informazio neurrigabearen eta kontrolatuaren aurrean.

Beste alde batetik, haurrek eta gazteek utzi diote gizarteko –eta ondorioz, hiriko– protagonista pasiboak izateari. Izan ere, 1989ko azaroaren 20ko Nazio Batuen Konbentzioak Adierazpen Unibertsala (1959) garatu eta agiriaren printzipioak lotesletzat jo zituen. Bada, Konbentzioak haur eta gazteei eskubide zibil eta politikoak aitortu eta, ondorioz, eskubide osoko herritar egin ditu. Beraz, badute elkartu eta parte hartzeko aukera, beren heldutasun mailaren arabera.

Baina, hiriko haur eta gazteak babestuko baditugu, beren izaera pribilegiatzeaz haratago jo beharra dago. Haiei dagokien tokia aurkitzea da kontua, bertute hiritar gisa belaunaldien arteko harremanak gidatzeko poza duten herritar helduen ondoan dagokien lekua, alegia. XXI. mendearen hasiera honetan, haurrek eta helduek, bi-biek hezkuntza behar dute beren bizitzan zehar, bi-biek prestakuntza berritua behar dute beti.

Herritartasun globala eratzen ari den honetan, oraindik ez dago esparru global demokratikorik, oraindik herrialde askok ez dute beren benetako gizarte- eta kultura-arauak aintzat hartuko dituen egiazko demokraziarik lortu, eta tradizio handieneko demokraziak ere ezin dira beren sistemen kalitateaz pozik egon. Testuinguru horretan, herrialde guztietako hiriek, bakoitzak bere tokitik, herritartasun demokratiko osoa landu eta finkatzeko lanabes izan behar dute, eta bizikidetzak baketsua sustatu behar dute (horretarako, prestakuntza erabiliko dute, prestakuntza balio etikoetan eta gizalegean), ahal diren gobernu molde guztiak errespetatu behar dituzte eta, azkenik, kalitatezko ordezkaritza- eta partaidetza-bideak abiarazi.

Berez darie aniztasuna egungo hiriei eta, aurreikuspenen arabera, are handiagoa izango da etorkizunean. Hori dela eta, hiri hezitzailearen erronketako bat da nortasunaren eta aniztasunaren arteko oreka eta harmonia sustatzea, betiere kontuan harturik bai hiria osatzen duten komunitateen ekarpenak, bai hartan bizi diren guztiek beren kultura aitortua izateko duten eskubidea.

Kezka eta zalantzasu betetako mundu honek lehentasuna ematen dio segurtasunari eta, maiz, bestearen ukazioan datza, bai eta elkarrekiko mesfidantzan ere. Hiri hezitzaileak horren berri badaki, ongi jakin ere, eta ez du alde bakarreko irtenbide sinplerik proposatzen; kontraesana onartu eta ezagutza-, elkarrizketa- eta partaidetza-prozesuak proposatzen ditu, zalantzan eta zalantzarekin bizitzeko bide egokiena delakoan.

Beraz, hiri hezitzaileerako eskubidea berretsi da, hezkuntzarako funtsezko eskubidearen egiazko hedapen gisa ulertua. Benetan uztartu behar dira, hezkuntza-etapa formalean eta helduaroan, hiriko baliabideen nahiz prestakuntzarako ahalmena eta hezkuntza-, lan- eta gizarte-sistemaren ohiko garapena.

Hiri hezitzaileerako eskubideak printzipio hauen berme nabarmena izan behar du: pertsona guztien arteko berdintasunarena, justizia sozialarena eta lurralde-orekarena.

Horrek toki-gobernuen erantzukizuna handitzen du; hau da, hiriak bere baitan dituen hezkuntza-ahalmen guztiak garatu behar ditu, bere proiektu politikoan hiri hezitzailearen printzipioak sartuta.

Printzipioak

1. Hiri Hezitailerako Eskubidea

1 Hiriko biztanle orok hiriak prestakuntzan, entretenimenduan eta norberaren garapenean eskainitako bitarteko eta aukerak askatasunez eta berdintasunez gozatzeko eskubidea izango du. Hiri hezitailerako eskubidea proposatzen da pertsona guztiek hezkuntzarako duten funtsezko eskubidearen hedapen gisa. Hiri hezitzaileak konpromisoa etengabe berritzen du bere biztanleak bizitzan zehar eta era askotako arloetan prestatzeko. Eta hori ahalbidetzeko, talde guztiak eta bakoitzaren beharrak hartu beharko ditu kontuan.

Hiriaren plangintzan eta gobernuan, behar diren neurriak hartuko dira edonolako oztopoak kentzeko, hesi fisikoak barne, berdintasunerako eskubidea eragozten badute. Udal-administrazioa eta hirian eragiten duten beste administrazio batzuk izango dira horren erantzule; eta biztanleak beraiek ere zeregin horretan konprometiturik egongo dira, hala gizabanako bakoitzaren mailan nola pertsonak partaide diren elkartean bidez.

2 Hiriak aniztasunean oinarritutako hezkuntza sustatuko du, betiere ulergarritasuna, nazioarteko lankidetzaren solidarioa eta munduko bakea helburu. Bazterkeria-mota orori aurre egingo dion hezkuntza izango da. Adierazpen-askatasuna eta kultura-aniztasuna sustatuko ditu, bai eta berdintasunean oinarritutako elkarrizketa ere. Halaber, abangoardiako nahiz herri-kulturako ekimenak onartuko ditu, beren jatorria edozein izanik ere. Merkatu hutseko irizpideek kulturaren sustapenean sortutako desberdintasunak zuzentzen lagunduko du.

3 Hiri hezitzaileak belaunaldien arteko elkarrizketa sustatuko du, ez soilik bizikidetzaren baketsuerako formula gisa, baizik eta hainbat adinetako pertsona-taldeen arteko proiektu bateratuak eta partekatutako bilatzeko. Proiektuok bideratu beharko lirateke gizalegezko ekimenak eta ekintzak gauzatzera, eta baliagarriak izango dira belaunaldien arteko izaera duten heinean eta adin guztietako gaitasunak eta balioak aintzat hartzen dituzten neurrian.

4 Hezkuntza-izaerako udal-politika guztiek testuinguru zabalagoa izan behar dute xede, betiere justizia sozialean, gizalege demokratikoan, bizi-kalitatean eta beren biztanleen sustapenean oinarriturik.

5 Udalerriek eraginkortasunez erabiliko dituzte hezkuntzan dagozkien eskumenak. Eskumen horren irismena edozein izanik ere, hezkuntza-politika zabala egin beharko dute, zeharreko eta berritzailea, bere barnean hezkuntza formalaren, ez-formalaren eta informalararen molde guztiak hartuko dituen, bai eta hirian sortzen diren kultura-adierazpen, informazio-iturri eta errealitatea ezagutzeko bideak ere.

Egingarritzat jotzen diren politikak ezartzea eta haien eraginkortasuna ebaluatzea dira udal-administrazioaren politika; horrez gain, estatu edo erregio mailako beste administrazio batzuen lege-erabaki egokiak lortzea ere bai.





6 Jarduketa egokia egiteko, hiriko udal-politikaren arduradunek beren biztanleen egoerari eta beharrei buruzko argibide zehatza izan beharko dute. Alde horretatik, azterlanak egin eta behar bezala eguneratuko dituzte, bai eta jendaurrean jarri ere. Halaber, gizabanakoei eta taldeei irekitako bide iraunkorrak ezarriko dituzte proposamen zehatzak eta politika orokorrekoak egiteko aukera izan dezaten.

Era berean, bere ardurapeko arlo orotan erabakiak hartzeko prozesuetan, udalerriak kontuan hartuko du erabakiek hezkuntzan eta prestakuntzan izango duten eragina.

2. Hiriaren konpromisoa

7 Hiriak bere nortasuna, nortasun konplexua, aurkitzen, babesten eta aurkezten jakin beharko du. Horrexek egingo du hiria paregabe, eta elkarrizketa emankorraren oinarria izango da bai bere barnera, bai beste hiriekin. Hiriaren ohiturak eta jatorriak bateragarri izan behar dira nazioarteko bizimoduekin. Horrela, irudi erakargarria eskaintzeko aukera izango du bere natura-eta gizarte-ingurunea galarazi gabe.

Aldi berean, hirian mintzatzen diren hizkuntzen ezagutza, irakaskuntza eta erabilera sustatuko ditu, pertsonen arteko lokarria eta uztarketa-bide delakoan.

8 Hiriaren eraldakuntza eta hazkunderako, oreka aurkitu beharko da: premia berriak kontuan hartu bai, baina iraganaren nahiz izatearen eraikuntza eta ikur adierazgarri nabarmenek irauten egin beharko dute. Hiri-planifikazioak kontuan hartu beharko du hiri-inguruneak jende guztiaren garapenean eta jendearen xede pertsonalak eta sozialak integratzeko duen eragin handia, eta belaunaldiak nahiz kultura desberdineko pertsonak bereiztearen aurka jardun beharko du, denek baitute elkarrengandik zer ikasi handia.

Esparru fisikoa antolatuko da irisgarritasun, topaketa, harreman, jolas eta olgeta arloko beharrei jarraiki, eta naturara gehiago hurbiltzea hartuko da kontuan. Hiri hezitzaileak arretaz zainduko ditu mendetasuna duten pertsonen beharrak hirigintza, ekipamendu eta zerbitzuen planifikazioan, haiei ingurune atsegina bermatzeko eta izan ditzaketan mugaketak errespetatzeko, ahalik eta autonomia handienari uko egin behar izan gabe.

9 Hiri hezitzaileak herritarren parte-hartzea sustatuko du ikuspegi kritikotik eta erantzunkidetik. Horretarako, toki-gobernuak behar den argibidea eman eta, zeharkakotasunetik, balio eti-koetan eta gizalegezkoetan hezteko orientabideak eta jarduerak sustatuko ditu.

Aldi berean, herritarrak guztien proiektuan parte hartzeko jarrera bultzatuko du erakundeetatik eta talde zibiletatik nahiz sozialetatik abiatuta, eta aintzat hartuko ditu bai ekimen pribatuak, bai eta berezko parte-hartze formak ere.

10 Udal-gobernuak biztanle guztien –eta, bereziki, haur eta gazteen– garapen pertsonal, sozial, moral eta kulturalarekin bat datozen esparru, ekipamendu eta zerbitzu publiko ego-kiez hornitu beharko du hiria.

11 Hiriak bere biztanle guztien bizi-kalitatea bermatu beharko du. Horrek berekin dakar natur ingurunearekiko oreka, ingurumen osasuntsurako eskubidea eta, horrez gain, etxe, lan, aisia eta garraiorako eskubidea ere, besteak beste. Aldi berean, aktiboki sustatuko du osasune-rako hezkuntza eta biztanle guztien parte-hartzea garapen iraunkorreko jokabide egokietan.

12 Hezkuntza-proiektu esplizitua, edo hiriaren egituraren eta erregimenean inplizitua dagoen hezkuntza-proiektua, hiriak sustatzen dituen balioak, eskaintzen duen bizi-kalitatea, anto-latzen dituen ekitaldiak, prestatzen dituen edonolako kanpainak edo proiektuak gogoeta gai eta partaidetza xede izango dira, behar diren lanabesak erabilia, pertsonen –gizabanako gisa eta talde gisa– hazten laguntzeko.

3. Pertsonen zerbitzu osoan

13 Udalerriak ebaluatuko du haur eta gazteek inolako bitartekaritzarik gabe jasotzen dituzten kultur, josteta, informazio, publizitate edo beste era bateko proposamenen eta errealitate-en eragina. Hala gertatzekotan, udalerriak zentzuzko azalpenak edo interpretazioak emango ditu inoren gogoak makurrarazi nahi izan gabe. Era berean, oreka jartzen ahaleginduko da babes-beharraren eta ezagutzarako autonomiaren artean. Halaber, prestakuntza eta eztabaidarako esparruak eratuko ditu, hirien arteko trukaketa barne, hiriek sortzen dituzten berritasunak biz-tanle guztiek beren gain erabat har ditzaten.

14 Hiria familiei behar bezalako prestakuntza ematen ahaleginduko da, haien seme-alabei hazten laguntzeko, haien seme-alabei hiriaren funtsa barneratzen laguntzeko, elkarrekiko begirunearekin bat. Alde horretatik, oro har, hezitzaileentzako prestakuntza-proposamenak gara-tuko ditu, bai eta hirian, nahiz eta maiz ohartu gabe, hezkuntza-eginkizunak betetzen dituzten pertsonentzat ere (gizabanakoak edo zerbitzu publikoetako langileak izan). Era berean, arduratu-ko da zuzenean udalerriaren mendeandauden segurtasuneko eta babes zibileko kidegoek pro-posamen horiekin bat jardun dezaten.

15 Hiriak beren biztanleei gizartearen tokia betetzeko aukera eskaini beharko die; behar beza-lako aholkularitza emango die beren orientazio pertsonalerako eta beren lan-bokazioa lantzeko, eta gizarte-jardueretan parte hartzeko aukera emango die. Hezkuntza eta lanaren arlo-ari dagokionez, garrantzitsua da esatea harreman estua egon beharko duela hezkuntzaren pla-nifikazioaren eta lan-merkatuaren beharren artean.

Alde horretatik, hiriek gizartearen eskaria kontuan hartuko dituen prestakuntzarako estrategiak definituko dituzte eta, aldi berean, sindikatuekin eta enpresaburuen elkarrekin elkarlanean ari-tuko dira lanpostuak sortzeko eta izaera formaleko zein ez-formaleko prestakuntza-jarduerak bizitzan zehar antolatuzko.

16 Hiriak ohartu beharko zaizkie beren barnean dauden eskusio- eta bazterkeria-mekanismo eta -mota guztiei, eta behar diren politikak egingo dituzte halakoak zuzentzeko. Bereziki, iritsi berri diren pertsoneri egingo diete harrera, etorkinak edo errefuxiatuak izan, hiria beraiena balitz bezala askatasunez sentitzeko eskubidea dutelako. Halaber, ahaleginak egingo dituzte auzoen eta haietako izaera guztietako biztanleen artean kohesioa sustatzeko.

17 Era askotakoak izan daitezke desberdintasunak zuzentzea helburu duten esku-hartzeak, baina guztiek pertsonaren ikuspegi osoa izan beharko dute abiapuntu, bakoitzaren interesek eta guztiei dagozkien eskubideek osatutako ikuspegi osoa, alegia. Esku-hartze esanguratsu orok koordinazioa bermatu beharko du tartean sarturik dauden administrazioen eta beren zerbitzuen artean. Halaber, administrazioen eta libreki eta demokratikoki antolatutako gizarte zibilaren arteko lankidetzak sustatuko da. Izan daitezke hirugarren sektorea esaten zaion horretako erakundeak, gobernuak kanpoko erakundeak eta antzeko erakundeak.

18 Hiriak elkartegintza sustatuko du herritarren parte-hartzea bultzatzeko eta gizalegezko erantzunkidetasunari erantzuteko, dela komunitatearen zerbitzuko jarduketak bideratzeko, dela pertsonen garapen sozial, moral eta kulturalerako informazioa, materialak eta ideiak lortzeko. Aldi berean, prestakuntzan lagunduko du elkartegintzak berekin dakartzan erabakietan, planifikazioan eta kudeaketan parte hartzeko.

19 Udalerriak behar hainbateko informazio ulergarria bermatu beharko du eta, aldi berean, bere biztanleak informa daitezten sustatuko du. Aintzat hartuta gaur egun eskura dagoen informazio-jario handia aukeratu, ulertu eta tratatzearen balioa, hiri hezitzaileak guztien esku dauden baliabideak jarriko ditu. Udalerriak harrera berezia behar duten taldeak identifikatuko ditu, eta informazio, orientazio eta laguntzarako puntu espezializatuak jarriko ditu haien eskura.

Aldi berean, informazioaren eta komunikazioen teknologietan ikasteko programak ezarriko ditu, adin eta gizarte talde guztientzako ezarri ere, eskusio molde berriei aurre egiteko.

20 Komunitatearentzako gero eta beharrezkoagoa den helburua den aldetik, hiri hezitzaileak balioetan prestatu eta herritartasun demokratikoa lantzeko praktikak eskaini beharko dizkie biztanle guztiei: errespetua, tolerantzia, parte-hartzea, erantzukizuna eta gauza publikoaren aldeko interesa, bai eta bere programen, beren ondasunen eta bere zerbitzuen aldeko interesa ere.

.....

Agirian agertu diren balio eta printzipio guztiekin hiri sinatzaile guztiek hartutako konpromisoa adierazten du gutun honek. Gutunak bidea zabalik utzi du bere erreformarako, eta gizartearen bilakaera azkarrak etorkizunean ekarriko dituen alderdiekin osatu beharko da.

